# EUSKADIKO ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN INPAKTUA

## 2024



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL
ETA AUTOGOBERNU SAILA

# Euskadiko onura publikoko elkarteen inpaktua

## 2024ko txostena

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritza

ELKARTEEN BABESLETZA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen erregistro bibliografiko bat Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusian kontsulta daiteke: https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua

**Edizioa**: lehenengoa; 2026ko apirila.

**Ale kopurua**: 30 ale

**©:** Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Saila

**Internet**: www.euskadi.eus

**Argitaratzailea:**
Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Itzulpena:**
IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

**Inprimatze-lanak**:
Eusko Jaurlaritzako Inprimaketa eta Erreprografia Zerbitzua

**ISSN:** Izapidetzen

**Lege-gordailua:** Izapidetzen

# Aurkibidea

**AURKEZPENA** ... 1

Sailburuaren agurra ... 1

Sarrera ... 3

Metodologia ... 5

Definizioak ... 8

Begi-kolpe batez ... 10

**1. DATU OROKORRAK** ... 12

1.1 Inskribatutako elkarteak ... 14

1.2 Onura publikoko elkarteen urteko kontuak ... 18

1.3 Onura publikoko elkarteen tipologia: jarduera-arloa, tamaina, antzinatasuna eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sarea, sektore publikoa ... 19

1.4 Gardentasuna ... 23

**2. MAGNITUDE EKONOMIKOAK** ... 28

2.1 Diru-sarrerak ... 29

2.2 Ondare-egoera, finantza-egoera eta gastu erantsia ... 48

**3. PERTSONAK** ... 61

3.1 Ordainpeko langileak ... 62

3.2 Zuzendaritza-batzordea ... 67

3.3 Boluntarioak ... 74

**ONDORIOA** ... 80

**ERANSKINAK** ... 83

Siglak ... 84

Onura publikokotzat deklaratutako elkarteak ... 85

Grafiko eta taulen indizea ... 92

Harremanetarako ... 95

# AURKEZPENA



# Sailburuaren agurra



*Nekez irudika dezakegu herrialde hau elkarterik gabe, hau da, herritarren ekimen askez sortzen diren irabazi-asmorik gabeko entitaterik gabe; izan ere, gizakion berezko joera da elkartzea eta lankidetzan aritzea helburu amankomunak lortzeko. Askotariko arloak barne hartuz —sozialak, kulturalak, komunitarioak, hezkuntzakoak, auzoei edo sektoreei buruzkoak—, hainbat gai bideratzen dituzte elkarteek: parte-hartzea, aniztasunarekiko errespetua, elkartasuna, eta gure gizartea ezaugarritzen duen konpromiso kolektiboa, eta, beraz, egunez egun, gure komunitatearen kohesioa, ongizatea eta kalitate demokratikoa indartzen dituzte. Hitz batean, gure arteko bizikidetzaren funtsezko oinarriekin konpromiso irmoa hartua duen sare bat osatzen dute.*

*Elkarteak Euskadiko gizartearen aurrerabiderako funtsezko eragile dira: ibilbide sendoa dute, bizi-bizi ari dira lanean gaur egun, eta gero eta eginkizun garrantzitsuagoa betetzen dute. Gainera, erronka izugarriei aurre egiten diete egunero, hala nola jasangarritasunari, partaidetzaren sustapenari eta digitalizazioari. Gai horiei behar bezala erantzuteko, teknologia integratu beharko dute, bai barne-prozesuetan, bai antolakundearen eguneroko jardunean; hartara, erantzun inklusiboak, efizienteak eta berritzaileak eskaini ahal izango dituzte.*

*Arreta berezia merezi dute onura publikoko elkarteek; alegia, egiten dituzten jarduerei esker interes orokorra edo guztion onura lortzen laguntzen duten elkarteek. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren aitorpena jasotzen dute, adierazpen instituzional gisara, dekretu baten bidez.*

*Bada, herritarrek jakin dezaten zer lan egiten duen onura publikoko elkarteen sektoreak, eta bat etorriz gobernu onaren eta gardentasunaren aldeko politikak sendotzeko eta sektorearen ekarpen sozial eta ekonomikoa ikusarazteko hartua dugun konpromiso instituzionalarekin, atsegin handiz aurkezten dizuet "Euskadiko Onura Publikoko Elkarteen Inpaktua 2024" txostenaren lehenengo edizioa, Onura Publikoko Elkarteen Babesletzak idatzia, zeina zuzentzen dudan Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari atxikita baitago.*

*Txosten hau mugarri garrantzitsua da sektorearentzat, lehenengo aldia baita halako txosten bat argitaratzen dela. Lan hau osatzeko, onura publikokotzat deklaratuta dauden elkarteek haien jarduerei, egiturari, baliabideei eta gizarte-ekarpenari buruz helarazi diguten informazioa aztertu dugu. Entitateek ahaleginak egin dituztenez haien urteko memorien kalitatea hobetzeko eta, gainera, Babesletzak digitalizazio-prozesuak bultzatu dituenez, datu alderagarriagoak eta homogeneoagoak eskuratu ahal izan ditugu, eta hori ezinbesteko baldintza da inpaktua behar bezala neurtzeko.*

*Aztertu diren onura publikoko elkarteak oso konprometituta daude, besteak beste, pertsonen bizi-kalitatea hobetzearekin, eskubideen defentsarekin, gizarte-inklusioarekin, kultur sustapenarekin eta Euskadiko bizitza soziala ardazten eta aberasten duten interes orokorreko askotariko eremuekin.*

*2024ko ekitaldia ixtean, 27.116 elkarte daude Euskadin inskribatuta; haietatik 255ek onura publikoko elkarteen aitorpena dute. 400 milioi euroko diru-sarrerak mobilizatzen lagundu zuten, eta biztanle bakoitzeko 178 euro bideratu zituzten irabazi-asmorik gabeko helburuetara. Inpaktu ekonomikoaz harago, onura publikoko elkarteek 6.000 pertsonari baino gehiagori ematen diete lana —haietatik, % 73 emakumeak dira—, eta 15.000 boluntarioren baino gehiagoren parte-hartzea bideratzen dute.*

*Dokumentu hau abiapuntu bat da, beraz, ezagutza partekatua osatzen jarraitzeko, bai eta tresna bat ere, datuetan oinarritutako politika publikoak bultzatzen jarraitzeko, politika horien bidez onura publikoko elkarteek Euskadiren gizarte-garapenari begira duten funtsezko egitekoa aitortu, sustatu eta lagundu nahi baitugu.*

*Aukera hau baliatu nahi dut elkarteen eta bertan aritzen diren langile eta boluntarioen lan eta konpromiso altruista aitortzeko, haiei esker elkarteek gizarte-sentsibilitatea bideratzen baitute, eta, hortaz, gizarte osoa eta gutariko bakoitza hobetzen.*

*Espero dut txosten hau zuen interesekoa izatea. Bide batez, gogorarazi nahi dizuet nire lantaldea eta ni neu konprometituta gaudela sektorearekin –argi baitago gure gizarte-aurrerabidearen eragileetako bat dela– eta, beraz, hura laguntzen, indartzen eta proiektatzen jarraituko dugula.*

***María Ubarretxena Cid***

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua

Eusko Jaurlaritza

# Sarrera

Euskadiko Onura Publikoko Elkarteen Babesletzak —Eusko Jaurlaritzako Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailari atxikia berau— onura publikoko elkarteei aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko eta jarraipena egiteko eginkizuna du, elkarteek dagozkien betebeharrak bete ditzaten errazteko eta sustatzeko eta onura publikoa aitortzeko oinarri izan ziren betekizunak eraginkortasunez mantentzen dituztela ziurtatzeko; hori guztia, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Onura Publikoko Elkarteei eta beren Babesletzari buruzko Erregelamendua onartzen duen uztailaren 29ko 146/2008 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz.

Besteak beste, Babesletzaren eginkizuna da halako elkarteen eta haien xedeen eta jardueren berri ematea, gizarteak eta interesdunek ezagut ditzaten, bai eta azterlanak, analisiak eta txostenak egin daitezen bultzatzea ere, zehaztasunez eta sakontasunez jakin ahal izateko benetan zer ekarpen egiten dion elkarte-sareak Euskadiren ongizate sozial, ekonomiko eta komunitarioari.

Egiteko hori betetzeko, Euskadiko Onura Publikoko Elkarteen Inpaktuari buruzko lehenengo txosten hau aurkezten da.

Dokumentuak agerian uzten du zer ekarpen egiten duten onura publikoko elkarteek, ekarpen ekonomikoaz gain (enplegua sortzea, ondasunak eta zerbitzuak sortzea eta horiek interes-taldeen, erabiltzaileen eta onuradunen artean banatzea): ekarpen soziala eta komunitarioa, eta kohesioari eta parte-hartzeari dagokiona.

Txostenak hiru atal ditu. Lehenengo kapituluak informazioa eta zenbateko eguneratuak biltzen ditu elkarteen egoera orokorrari, sektorearen egoerari eta lurraldeko egoerari buruz. Bigarren kapituluan magnitude ekonomiko nagusiak aztertzen dira, horien finantzaketa-iturriak eta gizarte- eta ekonomia-ekarpena erakusteko. Hirugarren kapituluan, sektoreak enplegua sortzeko duen gaitasuna eta boluntarioek duten presentzia azaltzen dira. Gainera, gobernu-organoetako kideak kuantifikatzen ditu, eta

informazioa biltzen du jakin ahal izateko nolakoa den emakumeek eta gizonek sektorean duten egoera eta zenbatekoa den emakumeen presentzia elkarteetako zuzendaritza-batzordeetako presidente- eta idazkari-postuetan.

Onura publikoaren deklarazioa garrantzi bereziko aitorpena da Euskadiko elkarteen araubide juridikoan. Kalifikazio diskrezionala da, eta zenbait baldintza betetzen dituzten antolakundeei erreserbatuta dago; hain zuzen ere, onura publikokotzat deklaratuak izateko, antolakundeek, haien ibilbidea, konpromisoa eta ekarpen egiaztatua direla eta, modu eredugarrian ordezkatu behar dute herritarren parte-hartzea interes orokorreko gaietan, eta funtsezko balio zibikoak irudikatu behar dituzte, hala nola elkartasuna, altruismoa, eskuzabaltasuna eta aniztasuna. Hau da, estatus hori ez da administrazio-kategoria huts bat: da modu bat publikoki egiaztatzeko elkarte batek gizarte-balio handiko eginkizun komunitarioa betetzen duela eta eginkizun hori bizitza kolektiboa integratzera, kohesionatzera eta indartzera bideratuta dagoela.

Aparteko aitorpen hori lortzeko, elkarteek agerian utzi behar dute haien jardunak ekarpen esanguratsua egiten diela euskal gizartearen interes orokorrari eta guztion onurari. Horrek esan nahi du modu eraginkor eta jarraituan bete behar dituztela aldarrikatzen dituzten interes orokorreko helburuak, eta araubide berezi horren funtsezko balioak eguneroko jardunean txertatu behar dituztela. Azken batean, egiaztatu behar dute gizarteari egiten dioten ekarpena ez dela mugatzen helburuak formalki betetzera, baizik eta Euskadiren ongizateari begira gizarte-eragin erreal, iraunkor eta erabakigarria sortzen dutela. Inpaktu-txosten honen bidez, balio erantsi horri buruzko begirada zorrotza eta gardena eskaini nahi diegu herritarrei.

# Metodologia

Atal honen helburua da txostenean aztertzen diren sailkapenak eta prozedura deskribatzea.

- **Aztertutako elkarteak:** Txosten hau egiteko, kontuan hartu dira 2021, 2022, 2023 edo 2024ko ekitaldietan Euskadiko Elkarteen Babesletzaren aurrean kontuak eman dituzten onura publikoko elkarteen datuak.

- **Sailkapena, jarduera-arloaren arabera:** Jarduera-arlo bakoitza mugatzeko, elkarteen estatutuetan jasotako jarduerak hartu dira erreferentziatzat. Hori horrela, jarduera-arlo hauetan sailkatu dira elkarteak:

  - **Desgaitasun intelektual eta fisikoak:** helburu hauek dituzten elkarteak sartzen dira: desgaitasuna duten pertsonei eta haien senideei laguntza eta orientazioa ematea, haien eskubideak, autonomia eta inklusioa sustatzea eta defendatzea, gizartea sentsibilizatzea eta desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzera, heztera eta laneratzera eta haien aukera-berdintasuna lortzera bideratutako ekimenak sustatzea.
  - **Osasuna:** hemen sartzen dira osasun-arazoak eta gaixotasunak dituzten pertsonei eta haien senideei laguntza, informazioa eta orientazioa ematea helburu duten elkarteak, ohitura osasungarriak, laguntza psikosozialeko zerbitzuak eta autozaintzako jarduerak sustatzen dituzten elkarteak —osasun emozionala eta terapia psikologikoa barne— eta gizartea sentsibilizatzen dutenak. Jarduera-mota honen hartzaileek osasun-arazoak dituzte, baina desgaitasunik edo mendekotasunik ez, eta ez daude gizartetik baztertuta.
  - **Gizarte-zerbitzuak:** halakotzat sailkatzen dira kalteberatasun-egoeran, babesgabetasun-arriskuan edo gizartetik baztertuta dauden pertsona edo taldeen eta haien senideen gizarteratzea, autonomia eta gizarte-

ongizatea bultzatzea helburu duten entitateak, baldin eta horretarako erabiltzen dituzten prestazioak eta zerbitzuak nagusiki pertsonalak, komunitarioak eta harremanetakoak badira.

- **Kultura:** kultur jarduerak edo euskararekin zerikusia dutenak sustatzeko helburua duten entitateak.
- **Garapenerako lankidetza:** garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE) eta garapenerako lankidetzan aritzen diren beste entitate batzuk.
- **Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza:** ezagutzaren, teknologiaren eta berrikuntzaren ikerketa, garapena eta transferentzia xede duten entitateak —Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean jardun zein ez—.
- **Beste batzuk:** aurreko motetan sartzen ez diren jarduerak edo xedeak dituzten askotariko elkarteak sartzen dira kategoria honetan. Besteak beste, garapen sozioekonomikoarekin, kirolekin eta ingurumenarekin lotutako jarduera-arloak biltzen ditu atal honek.

– **Sailkapena, tamainaren arabera:** Tamainaren araberako sailkapena egiteko, 2024ko ekitaldiko gastu erantsia hartu da kontuan. Ekitaldi horretan kontuak aurkeztu ez dituzten onura publikoko elkarteak badaude, aurkeztutako azken ekitaldia hartu da erreferentzia moduan, edo, beharrezkoa izan bada, mikro tamainako elkarte gisa izendatu dira. Hala, urteko gastuaren arabera, honela sailkatzen dira:

- Mikroentitateak: 200 mila eurotik behera
- Txikiak: 200 mila euro eta 1 milioi euro artean
- Ertainak: 1 eta 5 milioi euro artean
- Handiak: 5 eta 15 milioi euro artean
- Oso handiak: 15 milioi euro baino gehiago

– **Gardentasuna:** Onura publikoko elkarteek Interneten duten presentzia aztertu da, haien web-atarien eta horietan aurkezten duten dokumentazioaren bidez. Bilaketak egiteko, bilatzaile nagusiak erabili dira. Gardentasunaren atalaren azterketa 2026ko martxoan egin da.

- **Balantze, gastu eta diru-sarreren datu erantsiak:** Aztertu diren ekitaldiak 2021, 2022, 2023 eta 2024koak izan dira. Txosten hau argitaratu den datan, 2025eko ekitaldiko kontuak aurkezteko epea ez da iraungi. Emaitzen kontuaren eta balantzearen magnitude erantsien iturria onura publikoko elkarteek Euskadiko Elkarteen Babesletzari kontuak emateko espedienteetan aurkeztu dizkieten emaitzen kontuaren eta balantzearen formularioak dira. Datuak 2026ko urtarrilean irauli dira.

- **Ordainpeko langileen eta boluntarioen datuak:** Plantillako langileei eta boluntarioei eta haien sexuaren araberako banaketari buruzko datuak hartzeko, aintzat hartu da onura publikoko elkarteek kontuak emateko espedientea irekitzeko formularioan sartu duten informazioa.

- **Zuzendaritza-batzordeen datuak:** Onura publikoko elkarteen zuzendaritza-batzordeen datuak eskuratzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan inskribatutako azken zuzendaritza-batzordearen datuetara jo da.

# Definizioak

Jarraian, txosten hau osatzen duten hiru kapituluetan azaltzen den nomenklatura eta zenbait kontzeptu argitu eta zehaztuko dira:

- **Diru-sarrera erantsia:** Emaitzen kontuko honako atal hauen batura da: jarduera propioaren diru-sarrerak, salmentak, merkataritza-jardueraren beste diru-sarrera batzuk, jardueraren beste diru-sarrera batzuk, ekitaldiko soberakinera pasatutako kapitaleko dirulaguntza, dohaintza eta legatuak, hornidura-soberakinak eta diru-sarrera finantzarioak.

- **Gastu erantsia:** Emaitzen kontuko honako atal hauen batura da: laguntzen ziozko gastua, izakinen hornidurak eta aldakuntza, beste ustiapen-gastu batzuk, amortizazioa, finantza-gastuak eta pertsonal-gastuak.

- **Diru-sarrera publikoak:** Diru-sarrera publikoak zehazteko aplikatutako metodologia honako hau izan da:

  - Onura publikoko elkarteen diru-sarrera publikoen iturria, diru-sarrera motari, ente publiko emaileari eta ekitaldian sortutako zenbatekoari buruzko datuei dagokienez, Euskadiko Elkarteen Erregistroan 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan aurkeztutako kontuak emateko espedientea osatzen duen memoria ekonomikoan jasotako informazioa izan da.
  - Sektore publikotik datozen diru-sarreren zenbatekoa ekitaldiko emaitzen kontuan egotzitakoa da, dagokion organismo publikoak noiz eman dituen gorabehera.
  - Diru-sarrera publikoak: elkarteek ente publikoen eskutik jaso dituzten diru-sarrera guztiak dira, hau da, administrazio publikoek emandako eta elkarteek jasotako finantzaketa publiko osoa. Horrenbestez, finantzaketa publikoaren kontzeptua diru-sarrera publikoen bi motatan banakatu da, Kontabilitateko

Plan Orokorra onartzen duen azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuko definizioetan oinarrituta:

- Kapitaleko dirulaguntzak: Administrazio publikoek emandakoak, elkartea ezartzeko edo haren egitura finkorako (aktibo ez-korronteak), edo etorkizuneko ekitaldietako gastu espezifikoak edo ustiapen-defizita finantzatzeko.
- Ustiapeneko dirulaguntzak, hitzarmenak eta kontratuak: Ustiapeneko dirulaguntzak administrazio publikoen eskutik jasotako dirulaguntza arruntak dira, oro har ekitaldiko ustiapen-defizita konpentsatzeko. Sektore publikotik ondasunak besterentzeagatik eta administrazio publikoei zerbitzuak emateagatik jasotako beste diru-sarrera batzuk, oro har, kontratu edo hitzarmen bidez formalizatzen diren diru-sarrerak dira, eta txosten honen ondorioetarako, ustiapeneko dirulaguntzatzat hartu dira, diru-sarrera arruntak direlako biak.

– **Soldata-kostu gordina:** soldata gordina, elkartearen konturako karga sozialak eta elkarteak jasanarazitako beste gastu sozial batzuk.

# Begi-kolpe batez

Emakumeak:
% 73
langileak
% 53
zuzendaritza batzordea

27.116
elkarte

% 76
diru-sarrera publikoak

255
elkarte, onura publikokotzat deklaratuak

Diru-sarrerak guztira:
400
milioi €

6.150
zuzeneko lanpostu

*Per capita* gastua:
178 €

15.000
boluntario

# 1

# DATU OROKORRAK



# Datu orokorrak

Kapitulu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteen sektoreari buruzko zenbait datu emango dira, atariko gisa; elkarteak zenbatetsi eta horien ezaugarriak deskribatuko dira. Azterlan honen erreferentziako urtea 2024a izango da, hots, txosten hau egin den datan, onura publikoaren deklarazioa duten elkarteek Elkarteen Erregistroan urteko kontuak aurkezteko betebeharra duten azken ekitaldia.

Era berean, onura publikoko elkarteen gardentasun-maila aztertuko da, haien web-atarietan jasotako informazioaren arabera.

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen 5 artikuluak arautzen duenez, elkarteak talde hauetan sailkatzen dira:

a) Xede partikularrak dituzten elkarteak: elkarteok, eskuarki eta lehentasunez, elkartekideen alde bideratzen dituzte beren jarduera sozialak, nahiz eta hirugarrenen aldeko jarduerak ere egin ditzaketen.

b) Xede orokorrak dituzten elkarteak: elkarteon xedeen artean elkartekideen interesak gainditzen dituzten interesak asetzea dago; eskuarki eta lehentasunez, hirugarrenen edo gizarte osoaren aldeko jarduerak egiten dituzte, eta beste pertsona batzuei ere elkartean beren borondatez sartzeko aukera eskaintzen diete.

c) Xede orokorrak dituzten eta onura publikokotzat deklaratuak diren elkarteak: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta daude elkarteok, eta, lege honek aurreikusitako eskakizunak betetzen dituztela kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzak, dekretuz, onura publikokotzat aitortzen ditu.

Xede orokorrak dituzten eta Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez onura publikokotzat deklaratuak diren elkarteen xedeen artean dago elkartekideen interesak gainditzen dituzten interesak asetzea; eskuarki eta lehentasunez, hirugarrenen edo gizarte osoaren aldeko jarduerak egiten dituzte, eta beste pertsona batzuei ere elkartean beren borondatez sartzeko aukera eskaintzen diete.

Onura publikoa diskrezionaltasunez aitortzen da, elkarteak eskaera aurkeztu aurreko gutxienez hiru urteetan aurrera eramandako xedeek eta jarduerek jasotzen duten balorazioaren arabera. Gobernu Kontseiluak onartutako dekretu baten bidez aitortuko du onura publikoa Eusko Jaurlaritzak. Onura publikoaren aitorpena ezeztatu egin daiteke, Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez, baldin eta ez bada egiaztatzen aitorpen hori ahalbidetu zuten betekizunak betetzen jarraitzen dela, edo elkarte mota horrek dituen betebeharretan ez-betetze larri eta errepikatua gertatzen bada.

Euskadiko Elkarteei buruzko Legearen 44. artikuluaren arabera, hauek dira onura publikoko elkarteen betebeharrak:

- Onura publikokotzat aitortu diren elkarteek aurreko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurkeztu behar dituzte Euskadiko Elkarteen Erregistro Orokorrean, ekitaldi hori amaitu eta hurrengo 6 hilabeteen barruan; horrekin batera, ekitaldi horretan elkarteek burutu dituzten jarduerak deskribatzen dituen memoria bat ere aurkeztu behar dute.

- Urteko kontu horiek elkarteek duten ondarearen, emaitzen eta finantza-egoeraren irudi fidela eman behar dute, bai eta elkarteek izan dituzten sarrera publikoen eta pribatuen jatorria, zenbatekoa, erabilera eta aplikazioa islatu ere.

- Onura publikoko elkarteek, orobat, Onurako Publikoko Elkarteen Babesletzak beren jarduerei eta funtzionamenduari buruz eskatzen dizkien informazio eta agiri guztiak eman behar dizkiote babesletzari.

## 1.1 INSKRIBATUTAKO ELKARTEAK

Hasteko, Euskadiko Elkarteen Erregistroan inskribatuta dagoen elkarte-kopurua adieraziko da. 2024ko abenduaren 31n, 27.116 elkarte daude Erregistroan inskribatuta; horietatik 255 onura publikokotzat deklaratutako elkarteak dira. Txosten honetan, hain zuzen ere, azken horiek aztertuko dira, behartuta baitaude Euskadiko Elkarteen Erregistroan urteko kontuak aurkeztera.

Txosten honen eranskinean, Euskadiko Elkarteen Erregistroan inskribatuta dauden onura publikoko 255 elkarteen zerrenda ageri da.

*1. grafikoa. Inskribatutako elkarteen eta onura publikokotzat deklaratutako elkarteen kopurua.*



Hona hemen onura publikokotzat deklaratutako elkarteen azken bi ekitaldietako mugimenduak:

*1. taula Altak/Bajak (eraketak/likidazioak)*

| TTHH | 2022/12/31 | Alta | Baja | Ezeztatzeak | 2023/12/31 | Alta | Baja | Ezeztatzeak | 2024/12/31 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Araba | 46 | 1 | | 2 | 45 | 1 | 2 | 1 | 43 |
| Bizkaia | 140 | 2 | 1 | 17 | 124 | 6 | 1 | 6 | 123 |
| Gipuzkoa | 102 | 1 | | 9 | 94 | 4 | | 9 | 89 |
| **EAE** | 288 | 4 | 1 | 28 | 263 | 11 | 3 | 16 | 255 |

Onura publikoko elkarteen kopuruak behera egin du, bai 2023ko ekitaldian, bai 2024koan. 2023ko ekitaldian 4 elkarte deklaratu ziren onura publikokotzat, dekretu bidez, eta 2024ko ekitaldian, berriz, 11. Bestalde, 2023ko ekitaldian, baja bakar bat egon zen, eta 2024ko ekitaldian, hiru.

2023ko eta 2024ko ekitaldiak ixtean, inskribatutako onura publikoko elkarteen guztizko kopuruak behera egin du, eta horren arrazoia bi ekitaldietan egon diren ezeztapenen kopurua izan da (28 ezeztapen 2023ko ekitaldian, eta 16 ezeztapen 2024an).

2023ko eta 2024ko ekitaldietako ezeztapen guztien atzean, zera egon da: elkarteak urteko kontuak aurkezteari uko egitea modu jarraituan edo jarduerarik ez egitea.

Onura publikoko elkarteen kopuruak denbora-tarte luzeagoan izan duen bilakaera aztertzen bada, ikusten da hor ere behera egin duela datuak: 2021ean, 276 elkarte zeuden Erregistroan inskribatuta, eta gaur egun, 2024ko abenduaren 31n, 255 daude; hau da, % 8 gutxiago. Murrizketa garbi hori gorabehera, urteko aldietan altak, bajak eta ezeztapenak egon dira. Beraz, ekitaldi batzuetan, bajak edo ezeztapenak altak baino gehiago izan direnez, onura publikoko elkarteen kopurua murriztu egin da.

Jarraian, azken lau urteetan egondako aldakuntzak ageri dira:

*2. grafikoa. Inskribatuta dauden onura publikoko elkarteen kopuruaren bilakaera*




*3. grafikoa. Onura publikoko elkarteen lurralde-banaketa*




Onura publikoko elkarteak lurralde historikoen arabera aztertuta: Araban 43 elkarte daude inskribatuta, Bizkaian 123 eta Gipuzkoan 89. Hau da, onura publikoko elkarteen % 48 Bizkaiko lurralde historikoan daude, % 35 Gipuzkoan eta % 17 Araban. Onura publikoko elkarteek urteotan zehar izan duten bilakaera aztertuz gero, nahiz eta kopuruak behera egin duen, lurralde historikoetako proportzioak egonkor eutsi dio denboran zehar.

Onura publikoko elkarteen kopurua lurralde historiko bakoitzeko biztanleriarekin alderatuz gero, Araban dago EAEko biztanleriaren % 15, eta elkarteak lurralde horretan % 17 dira. Gipuzkoan, EAEko biztanleriaren % 33 dago, eta elkarteak % 35 dira. Azkenik, Bizkaian, biztanleriaren % 52 dago, eta elkarteak % 48 dira. Beraz, bai Araban, bai Gipuzkoan, onura publikoko elkarteen sarea kontzentratuago dago; izan ere, onura publikoko elkarteen proportzioa bi ehuneko-puntu handiagoa da biztanleriaren pisua baino.

*4. grafikoa. Onura publikoko elkarteak eta biztanleria, lurralde historikoen arabera (%)*




Datuak 100.000 biztanleko aztertzen badira, ondoriozta daiteke EAEn onura publikoko 11 elkarte daudela 100 mila biztanleko. Lurralde historikoen arabera, Araban onura publikoko 13 elkarte daude 100 mila biztanleko, Gipuzkoan 12 eta Bizkaian 11.

Txosten honetan 2025eko ekitaldiari buruz emango den datu bakarra onura publikoko elkarteen kopuruarena izango da, erregistro-datu hori eskuragarri baitago dokumentu hau argiratatu den datan. Hain zuzen ere, 2025eko abenduaren 31n, 259 onura publikoko elkarteak ageri dira erregistroan inskribatuta, eta 2025. urtean zehar 6 elkarte onura publikokotzat deklaratu dira, eta 2 azkendu.

## 1.2 ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN URTEKO KONTUAK

2024ko ekitaldiko kontuak emateko betebeharra zuten onura publikoko 255 elkarteetatik 232k aurkeztu dituzte urteko kontuak; beraz, onura publikoko elkarteen % 91k kontuak emateko betebeharra konplitu dute 2024ko ekitaldian.

Onura publikoko elkarteren batek urteko kontuak aurkezteari uko egiten badio modu jarraituan, informazio-espediente bat irekitzen zaio, eta horrek berekin ekar dezake onura publikoaren aitorpena ezeztatzeko prozedura abiaraztea.

2024an, onura publikoko 91 elkartek aurkeztu dute, urteko kontuekin batera, kanpoko auditoretzaren txostena. Horietatik 20k beren borondatez egin zuten. Horrek esan nahi du kontuak eman dituzten onura publikoko elkarteen % 36k auditoretza-txostena aurkeztu dutela.

## 1.3 ONURA PUBLIKOKO ELKARTEEN TIPOLOGIA: JARDUERA-ARLOA, TAMAINA, ANTZINATASUNA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAREN EUSKAL SAREA, SEKTORE PUBLIKOA

Metodologiaren atalean aurkeztutako definizioetan ezarri den bezala, txostenean zehar azterketak egiten dira, onura publikoko elkarteak multzokatzeko erabili diren **jarduera-arloen** arabera. Ondorioz, dagokion testuinguruan aztertu ahal izateko dena, onura publikoko elkarteek zein jarduera garatzen duten eta arlo bakoitzak halako zenbat elkarte biltzen dituen argitu beharra dago. Hona hemen:

*5. grafikoa. Onura publikoko elkarteen kopurua, jardueraren arabera*




Bestalde, onura publikoko elkarteak beren jardueren arabera bereizteaz gain, **tamainaren** arabera ere bereizi dira, aurkeztu duten urteko gastuaren aurrekontuaren parametroetan oinarrituta.

*6. grafikoa. Onura publikoko elkarteak, tamainaren arabera (%)*




Hala, aztertutako onura publikoko elkarteetatik % 41 mikroentitateak dira (ekitaldiko gastua, guztira, 200 mila eurotik beherakoa), % 31 entitate txikiak dira (200 mila euro eta 1 milioi euro artean), % 22 ertainak (1 eta 5 milioi euro artean),% 3 handiak (5 eta 15 milioi euro artean) eta % 3 oso handiak (urteko gastuaren aurrekontua 15 milioi eurotik gorakoa).

Onura publikoko elkarteen tamaina jarduera-arloaren arabera aztertuta, egiaztatu da desgaitasun intelektual eta fisikoak dituzten pertsonekin aritzen diren onura publikoko elkarteak eta gizarte-zerbitzuetako elkarteak tamaina-kategoria guztietakoak direla; gainera, desgaitasun intelektual eta fisikoak dituzten pertsonekin aritzen diren elkarteak erabilera publikoko elkarte oso handien % 57 eta handien % 44 dira. Bestalde, teknologia-arloko elkarte guztiak ertainak edo tamaina handiagokoak dira; osasun-arlokoak eta garapenerako lankidetzakoak, berriz, mikroentitateak, entitate txikiak edo ertainak dira den-denak.

*7. grafikoa. Onura publikoko elkarteen kopurua, jardueraren arabera (%)*



Euskadiko Elkarteen Erregistroan inskribatzen direnetik onura publikoaren deklarazioa lortzen duten arte, elkarteen batez besteko antzinatasuna 14 urtekoa da. Horri dagokionez, kontuan izan behar da elkarte bat onura publikokotzat deklaratzeko, zera egiaztatu behar duela, besteak beste: azken 3 urteetan garatu dituen helburuek eta jarduerek aitorpen hori merezi dutela.

Bestalde, onura publikoaren deklarazioa eskuratu dutenetik 2024ko ekitaldia itxi arte, elkarteen batez besteko antzinatasuna 19 urtekoa da; kultura-arloko onura publikoko elkarteak dira batez beste antzinatasun handiena dutenak. Nabarmentzekoa da horietatik 26k 25 urte baino gehiago dituztela.

Beraz, onura publikoko elkarteen **guztizko antzinatasuna** 33 urtekoa da, batez beste.

*8. grafikoa. Elkarteen kopurua, onura publikoaren deklarazioa eskuratu dutenetik, antzinatasunaren arabera*



Onura publikoko elkarte berrienei dagokienez, azken 15 urteetan 125 elkarte deklaratu dira onura publikokotzat, hots, aztertutako elkarte guztien % 49. Horietako gehienek garapenerako lankidetzaren (31), gizarte-zerbitzuen (25) eta osasunaren (24) eremuetan egiten dituzte jarduerak.

*9. grafikoa. Onura publikoko elkarte berrienen kopurua, jardueraren arabera*




Alde batetik, 2024ko abenduaren 31n onura publikokotzat jota dauden 255 elkarteetatik 6 Euskal Autonomia Erkidegoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartuta daude; horietatik bat Araban dago, hiru Bizkaian eta bi Gipuzkoan. Teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-jardueretan aritzen dira denak.

Beste alde batetik, 2024ko abenduaren 31n onura publikokotzat jota dauden 255 elkarteetatik 11k sektore publikoak izendatutako zuzendaritza-batzordeko kideren bat dute. Gainera, horietako 6tan, zuzendaritza-batzordeko kide gehienak sektore publikoak izendatu ditu.

## 1.4 GARDENTASUNA

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 3.b) artikuluaren arabera, 2.1.i) artikuluan ezarritako sektore publikoko elkarteez gain, lege horren II. kapituluan aurreikusitako publizitate aktiboko xedapenak bete behar dituzte honako hauek: *«urtebetez 100.000 euro baino gehiagoko laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten erakunde pribatuak, edo urteko sarreren % 40 —5.000 euroko minimoarekin—, gutxienez, laguntza edo dirulaguntza publikoetatik eskuratzen duten erakunde pribatuak»*.

Onura publikokotzat deklaratutako EAEko elkarteen % 91k dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenez beren jarduerak garatzeko, beharrezkoa da halako entitateek neurriak hartzea, gardentasunaren gaineko betebeharrak bete behar dituen informazioa dagokion web-orrietan argitaratu dadin, modu argian, egituratuan eta ulergarrian. Gainera, 2024ko ekitaldian, aztertutako elkarteen % 58k 100.000 eurotik gorako jatorri publikoko diru-sarrerak izan dituzte, eta elkarteen % 8k, nahiz eta zenbateko hori baino dirulaguntza txikiagoak jaso, urteko diru-sarreren % 40 baino gehiago dirulaguntzen bidez eskuratu dituzte. Horrenbestez, aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera, onura publikokotzat deklaratutako EAEko elkarteen % 66 19/2013 Legearen betebeharpeko subjektutzat hartzen da.

Atal honetan, onura publikokotzat deklaratutako Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek gardentasunaren arloan dituzten betebeharren betearazpen-maila aztertzen da, beren web-orrietan argitaratutako informazioa oinarri hartuta, hartara azterketaren emaitzak abiapuntu moduan har daitezen hobekuntza-arloak ezartzeko.

Gardentasun-maila zenbatesteko, oinarrizko lehen sailkapen bat egiten da: elkarteak web-orri propioa duen ala ez. Ondoren, web-orrian zein informazio mota argitaratzen den egiaztatzen da. Txosten honetan aztertutako elkarteetatik % 84k daukate web-orria. Gainerako % 16ak ez dauka presentziarik Interneten.

*10. grafikoa. Web-orria*



Web-orria duten elkarteen gardentasun-maila zehazteko, zazpi adierazle ezarri dira, informazio orokorrari nahiz ekonomikoari buruzkoak:

1. Gardentasunari buruzko atal espezifiko bat dago.
2. Estatutuak argitaratuta daude.
3. Zuzendaritza-batzordea osatzen duten pertsonak identifikatuta daude.
4. 2024ko ekitaldiko urteko kontuak argitaratuta daude.
5. Aurreko ekitaldietako urteko kontuak argitaratuta daude (2021etik 2023ra).
6. 2024ko ekitaldiko auditoretza-txostena argitaratuta dago.
7. 2024ko ekitaldiko jarduera-memoria argitaratuta dago.

Bigarren adierazleari dagokionez, esan beharra dago onura publikokotzat deklaratutako elkarteen estatutuak, zuzendaritza-batzordeetako kideak eta 2023ko eta 2024ko ekitaldietako egoera-orri finantzarioak Euskadiko Elkarteen Erregistroaren webgunean argitaratuta daudela.

*11. grafikoa. Gardentasun-ataleko batez besteko nota*




Aurreko adierazleetako bakoitzeko puntu bat ematen da. Hartara, puntuazioa zenbat eta handiagoa izan, elkartea gardenagoa izango da. Aldiz, puntuazio txikiagoa duten elkarteak opakuagoak direla ulertuko da. Egindako azterketaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko elkarteek badute zer hobetu gardentasunari dagokionez; izan ere, 7 puntutatik 2,09 puntu soilik lortu dituzte, batez beste.

Onura publikokotzat deklaratutako elkarteen % 36k beren jarduerak jakinarazteko tresna gisa soilik erabiltzen dute web-orria, hau da, zazpi adierazleetako bat ere sartu gabe. Beraz, puntuaziorik eskuratu ez dutenez, opakutzat jotzen dira.

Aztertu diren onura publikoko elkarteak lortutako notaren arabera banatzen badira, nabarmentzekoa da % 27k gainditu dutela (gainditutzat jotzen da 7 puntutik 4 edo gehiago lortuz gero).

*12. grafikoa. Lortutako puntuazioa (%)*




Hurrengo grafikoan banan-banan aztertzen da aurreko adierazleak web-orrietan ote dauden; azpimarratzekoa da gehien jakinarazten diren aldagaiak 2024ko ekitaldiko jarduera-memoriarekin eta zuzendaritza-batzordeko kideekin lotutakoak direla; zehazki, jarduera-memorien kasuan, datua % 43ra heltzen da. Aldiz, aztertutako web-orrien % 38k gardentasunaren atal espezifiko bat duten arren, onura publikokotzat deklaratutako elkarteen % 22k baino gutxiagok ematen dute informazio ekonomikoa bertan.

*13. grafikoa. Adierazle bakoitza betetzen duten elkarteen ehunekoa (%)*



# 2

# MAGNITUDE EKONOMIKOAK



# Magnitude ekonomikoak

Onura publikokotzat deklaratutako elkarteen magnitude ekonomikoak aztertzeko, kapitulu honetan elkarteen diru-sarrerak, gastuak eta ondare-egoera aztertuko dira. Informazio hori 2024ko ekitaldiari nahiz azken ekitaldietako adierazle nagusien bilakaerari buruzkoa da.

Gainera, magnitude ekonomiko nagusiak banakatzen dira, jarduera-arloaren, tamainaren eta lurralde historikoaren arabera, irakurleak informazio erabilgarria eta esanguratsua jaso dezan onura publikokotzat deklaratutako EAEko elkarteen sektoreari buruz.

Horretarako, honela bereizi da kapitulua:

**2.1** **Diru-sarrerak:** Diru-sarreren jatorri publiko edo pribatuari buruzko informazioa jasotzen da, dirulaguntzak eman dituzten administrazio publikoei buruzko informazioa barne.

**2.2** Onura publikokotzat deklaratutako elkarteen **ondare- eta finantza-egoera** eta gastu erantsia.

## 2.1 DIRU-SARRERAK

Onura publikokotzat deklaratutako elkarteek 2024ko ekitaldian sortu duten diru-sarreren bolumena 400 milioi eurokoa izan da. Diru-sarrera horietatik % 76k jatorri publikoa izan du, eta gainerako % 24a finantzaketa pribatua izan da. Atal honetan, elkarteen finantzaketa-bide nagusiak aztertuko dira, eta informazio hori banakatuta emango da jarduera-arloaren, entitate emailearen, tamainaren eta lurralde historikoaren arabera.

*14. grafikoa. Diru-sarrera publiko eta pribatuen banaketa*




Onura publikoko elkarteen finantzaketa pribatua erabiltzaileen kuotetatik, zerbitzu-prestaziotik, produktuen salmentatik eta dohaintza pribatu erregular edo aldizkakoetatik dator.

Administrazio publikoek emandako dirulaguntzen bitartez, elkarteek egiten dituzten jardueren zati handi bat finantzatzen da. Onura publikoaren deklarazioa lortu duten elkarteek interes orokorra edo guztion onura lortzen lagundu behar dute egiten dituzten jardueren bidez, eta pertsona fisiko edo juridikoen talde generikoen alde egin behar dute. Horregatik, administrazio publikoek, emandako laguntzen bidez, elkarteek zenbait arlotan ematen dituzten zerbitzuak sustatzen dituzte, hala nola desgaitasunak dituzten pertsonei laguntzekoak, osasun- eta kultura-arlokoak, garapenerako lankidetzakoak eta beste hainbat.

*15. grafikoa. Diru-sarreren ehunekoa, finantzaketa-motaren arabera (%)*



Onura publikoko elkarteak irabazi-asmorik gabeko entitateak dira, haien inguruarekin benetako konpromisoa dutenak; agerikoa da hori, diru-sarrerek lurralde historikoan duten pisuari erreparatuz gero. Jatorri pribatuetatik eta publikoetatik datozen diru-sarreren ehunekoa aztertuz gero, Bizkaiak jasotzen du finantzaketa publikoaren ehuneko handiena.

*16. grafikoa. Diru-sarreren banaketa, lurralde historikoaren arabera (eurotan eta %-tan)*




Hala ere, garrantzitsuagoa da lurraldeek *per capita* sortzen dituzten diru-sarrerak aztertzea, diru-sarreren bolumena aztertzea baino. Izan ere, hala, pertsona bakoitzeko lurralde-mailan sortzen diren diru-sarrerak beha daitezke. Hori horrela, biztanleen udal-estatistikako 2024ko abenduaren 31ko datuen arabera (EUSTATek aurkeztutakoak), hauek dira *per capita* diru-sarrerak lurraldeen arabera eta guztira EAEn:

*17. grafikoa. Per capita diru-sarrerak (eurotan)*




***Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika 2024/12/31n***

Bestalde, finantzaketa-iturriak jarduera-arloen arabera aztertze aldera, hurrengo grafikoan ikus daiteke onura publikoko elkarteek jasotzen duten finantzaketatik zer ehuneko den publikoa eta zer ehuneko pribatua. Emaitzak desberdinak dira, elkarteak egiten duen jardueraren arabera. Hala, jarduera-arlo gehienetan, diru-sarrera publikoen ehunekoa nabarmen handiagoa da diru-sarrera pribatuena baino; aldiz, kultura-arloan eta teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-arloan, finantzaketa publikoaren eta pribatuaren arteko oreka handiagoa da.

*18. grafikoa. Finantzaketa publikoaren eta pribatuaren ehunekoa, jarduera-arloen arabera (%)*




Beste ikuspegi batetik begiratuta, hau da, onura publikoko elkarteen tamaina kontuan hartuta, elkarte ertain eta handietan finantzaketa publikoak finantzaketa pribatuarekiko duen haztapena % 75 - % 25 da; elkarte oso handietan, berriz, diru-sarreren % 81ek jatorri publikoa dute. Ostera, elkarte txikietan eta mikroetan, finantzaketa publikoa txikiagoa da: % 59koa eta % 39koa da, hurrenez hurren.

**Finantzaketa publikoa**

Diru-sarreren ehuneko publiko eta pribatuak elkarteen jarduera-arloaren eta tamainaren arabera aztertu ondoren, jarraian, elkarteek jasotzen dituzten dirulaguntza publikoak aztertuko ditugu. 2024ko ekitaldian, onura publikokotzat deklaratutako elkarteek 304 milioi euroko ekarpenak jaso dituzte entitate publikoetatik. Jarraian, emandako dirulaguntza publikoei buruzko informazioa islatzen da, diru-kopuru horren helmuga ezagutzeko, jarduera-arloaren, elkartearen tamainaren, administrazio publiko emailearen eta lurralde historikoaren arabera.

Banakapenekin hasi baino lehen, ekitaldian zehar dirulaguntza publikoak jaso dituzten elkarteen bolumena ezagutu behar da. Onura publikokotzat deklaratutako elkarteen % 91k organismo publikoen diru-sarrerak jaso dituzte, eta gainerako % 9ak ez du ekarpen publikorik jaso.

*19. grafikoa. Diru-sarrera publikoen ehunekoa, tamainaren arabera (%)*




Elkarteen tamainari erreparatuz gero, alboko grafikoan ageri da zein izan den diru-sarrera publikoen ehunekoa, elkartearen tamainaren arabera banatuta, diru-sarrera publiko guztien aldean.

Pentsatzekoa da elkartearen tamaina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta diru-sarrera publiko gehiago jasoko duela. Hori horrela, onura publikoko elkarteek jasotzen dituzten diru-sarrera publikoko 304 milioi euroetatik, 134 milioi euro elkarte handietara bideratzen dira, eta elkarte txikiek eta mikroelkarteek 21 milioi euro soilik jasotzen dituzte, hau da, diru-sarrera publiko guztien % 7. Beraz, elkarte handiek finantzaketa publiko handiagoa jasotzen dute.

Jarraian, diru-sarrera publikoak jarduera-arloaren arabera zehazten dira. 2024ko ekitaldian onura publikoko elkarteei eman zaizkien diru-sarrera publiko guztietatik honako hauek izan dira jarduera bakoitzaren ehunekoak:

*20. grafikoa. Diru-sarrera publikoak, jarduera-arloaren arabera (eurotan eta %-tan)*




Ikusten den bezala, desgaitasun intelektual eta fisikoak dituzten pertsonei laguntzeko jarduerek guztira emandako diru-sarrera publikoen % 44 jaso dute.

Entitate publikoek aurrekontuen kargura ematen dituzte dirulaguntza publikoak, autonomia-erkidego, lurralde, toki, estatu edo Europa mailan. Horregatik, interesgarria da lehen aipatutako 304 milioi euroak aletzea, ez soilik tamainaren edo helburu dituzten jarduera-arloen arabera, baita entitate publiko emaileen arabera ere.

Kontuan hartu behar da dirulaguntza publikoak jasotzen dituzten onura publikoko 217 elkarteetatik gutxi gorabehera 35ek organismo bakarraren laguntza jasotzen dutela. 35 elkarte horiek jasotako dirulaguntzen % 45 gutxi gorabehera Bizkaiko Foru Aldundiak ematen ditu. Era berean, dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarteen % 75ek 2-4 organismoren eskutik jasotzen dituzte. Finantzatzaile nagusia berriz ere Bizkaiko Foru Aldundia da (elkarteen % 40tan du presentzia), eta, ondoren, Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia, % 27ko eta % 18ko presentziarekin, hurrenez hurren. Azkenik, lau organismo publikoren baino gehiagoren dirulaguntza jasotzen duten

elkarteak % 9 inguru dira. Horietatik, gizarte zerbitzuen eta kulturaren arloko elkarteek dute organismo finantzatzaile gehien.

Laguntzak ematen dituzten entitate publikoei buruzko azterketa eginez gero, ikusten da Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza direla finantzatzaile nagusiak, haiek ematen baitituzte elkarteentzako laguntza publiko guztien % 64.

*21. grafikoa. Dirulaguntza publikoen ehunekoa, entitate publiko emaileen arabera (%)*




Dirulaguntza publikoak aztertzen jarraitzeko, behin dirulaguntza publikoak entitate emaileen eta jarduera-arloaren arabera sailkatuta daudela, interesgarria da aurreko bi grafiko zirkularrak batera aztertzea. Horretarako, jarraian, onura publikoko elkarteek jasotzen dituzten diru-sarrera publikoak batuko dira, jarduera-arlo bakoitzaren arabera banakatuz laguntza horiek eman dituzten entitate publikoak eta diru-sarrera publikoek pribatuen aldean daukaten pisua:

*22. grafikoa. Jasotako dirulaguntza publikoak, jarduera-arloaren eta entitate publiko emailearen arabera (eurotan)*







Pribatuak %23
%77 Publikoak
Gizarte-zerbitzuak:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 69.249.584 €
EJ 19.894.976 € % 29
AFA 2.007.455 € % 3
BFA 17.050.421 € % 25
GFA 19.471.097 € % 28
EAEko Toki-erakundeak 10.478.119 € % 15
Estatua 45.008 € % 0
Europa 158.911 € % 0
Beste erakunde publiko batzuk 143.597 € % 0


Pribatuak %58
%42 Publikoak
Kultura:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 11.123.816 €
EJ 5.183.413 € % 47
AFA 88.564 € % 1
BFA 1.117.360 € % 10
GFA 1.642.541 € % 15
EAEko Toki-erakundeak 1.283.021 € % 11
Estatua 1.607.353 € % 14
Europa - € % 0
Beste erakunde publiko batzuk 201.564 € % 2



Pribatuak %16
%84 Publikoak
Garapenerako lankidetza:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 22.097.512 €
EJ
13.930.441 €
% 63
AFA
538.254 €
% 2
BFA
1.733.024 €
% 8
GFA
1.247.040 €
% 6
EAEko Toki-erakundeak
3.280.021 €
% 15
Estatua
1.340.246 €
% 6
Europa
8.486 €
% 0
Beste erakunde publiko batzuk
20.000 €
% 0




Pribatuak %43
%57 Publikoak
Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza:
Jasotako diru-sarrera publikoak guztira = 39.259.004 €
EJ
25.295.495 €
% 64
AFA
10.000 €
% 0
BFA
- €
% 0
GFA
1.014.456 €
% 3
EAEko Toki-erakundeak
69.179 €
% 0
Estatua
5.965.508 €
% 15
Europa
5.457.239 €
% 14
Beste erakunde publiko batzuk
1.447.127 €
% 4




Jarduera-arloekin jarraituz, eta aurreko grafikoak osatze aldera, hurrengo tauletan zehazten da dirulaguntza publikoak eman dituen organismo bakoitzak zer jarduera-arlotarako eman duen finantzaketa publiko gehien.

Hala, ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzak eman dituen dirulaguntzen % 28k, Estatuak eman dituenen % 61ek eta Europar Batasunak eman dituenen % 85ek teknologia, ikerketa eta berrikuntzako jarduerak finantzatu dituztela.

Foru-aldundiek, aldiz, dirulaguntzen % 90 inguru bideratu dute desgaitasun intelektual eta fisikoen eta osasunaren arloetara, bai eta gizarte-zerbitzuekin lotutako jardueretara ere.

Udalen dirulaguntza gehienek gizarte-zerbitzuak (% 59) eta garapenerako lankidetza (% 18) finantzatu dituzte.

*2. taula Emandako dirulaguntzen banakapena, entitate publiko emailearen eta jarduera-arloaren arabera (eurotan)*

| Erakunde Finantzatzailea | EJ | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 91.634.395 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 25.295.495 | % 28 |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 22.323.401 | % 24 |
| Gizarte-zerbitzuak | 19.894.976 | % 22 |
| Garapenerako lankidetza | 13.930.441 | % 15 |
| Kultura | 5.183.413 | % 6 |
| Beste batzuk | 3.734.303 | % 4 |
| Osasuna | 1.272.366 | % 1 |

| Erakunde Finantzatzailea | AFA | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 15.024.434 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 9.462.214 | % 63 |
| Osasuna | 2.634.878 | % 17 |
| Gizarte-zerbitzuak | 2.007.455 | % 13 |
| Garapenerako lankidetza | 538.254 | % 4 |
| Beste batzuk | 283.069 | % 2 |
| Kultura | 88.564 | % 1 |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 10.000 | % 0 |

| Erakunde Finantzatzailea | BFA | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 102.845.181 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 69.505.118 | % 68 |
| Gizarte-zerbitzuak | 17.050.421 | % 16 |
| Osasuna | 7.398.270 | % 7 |
| Beste batzuk | 6.040.988 | % 6 |
| Garapenerako lankidetza | 1.733.024 | % 2 |
| Kultura | 1.117.360 | % 1 |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 0 | % 0 |

| Erakunde Finantzatzailea | GFA | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 58.405.627 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 31.531.156 | % 54 |
| Gizarte-zerbitzuak | 19.471.097 | % 33 |
| Osasuna | 3.308.614 | % 6 |
| Kultura | 1.642.541 | % 3 |
| Garapenerako lankidetza | 1.247.040 | % 2 |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 1.014.456 | % 2 |
| Beste batzuk | 190.723 | % 0 |

| Erakunde Finantzatzailea | EAEko Toki-erakundeak | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 17.921.104 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Gizarte-zerbitzuak | 10.478.119 | % 59 |
| Garapenerako lankidetza | 3.280.021 | % 18 |
| Kultura | 1.283.021 | % 7 |
| Beste batzuk | 1.234.727 | % 7 |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 873.364 | % 5 |
| Osasuna | 702.673 | % 4 |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 69.179 | % 0 |

| Erakunde Finantzatzailea | Estatua | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 9.799.794 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 5.965.508 | % 61 |
| Kultura | 1.607.353 | % 16 |
| Garapenerako lankidetza | 1.340.246 | % 14 |
| Beste batzuk | 686.008 | % 7 |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 148.865 | % 2 |
| Gizarte-zerbitzuak | 45.008 | % 0 |
| Osasuna | 6.806 | % 0 |

| Erakunde Finantzatzailea | Europa | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 6.394.258 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 5.457.239 | % 85 |
| Beste batzuk | 766.072 | % 12 |
| Gizarte-zerbitzuak | 158.911 | % 3 |
| Garapenerako lankidetza | 8.486 | % 0 |
| Osasuna | 3.550 | % 0 |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 0 | % 0 |
| Kultura | 0 | % 0 |

| Erakunde Finantzatzailea | Beste erakunde publiko batzuk | |
|---|---|---|
| Guztira emandako dirulaguntzak | 2.315.792 | |
| **Jarduera-eremua** | **Zenbatekoa** | **%** |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 1.447.127 | % 62 |
| Beste batzuk | 489.331 | % 21 |
| Kultura | 201.564 | % 9 |
| Gizarte-zerbitzuak | 143.597 | % 6 |
| Garapenerako lankidetza | 20.000 | % 1 |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 14.173 | % 1 |
| Osasuna | 0 | % 0 |

Azkenik, lurralde historiko bakoitzean jasotako dirulaguntza publikoen azterketa ageri da, organismo finantzatzaileen arabera bereizita:

*23. grafikoa. Dirulaguntzak, lurralde historikoaren eta ente finantzatzailearen arabera (eurotan eta %-tan)*



Bestalde, eta txosten honen metodologiaren atalean aipatzen den gisan, dirulaguntza publikoak sailkatzeko modu bat da, batetik, kapitaleko dirulaguntzak eta, bestetik, ustiapeneko dirulaguntzak bereiztea. Kontuan hartuta ustiapeneko dirulaguntzak ekitaldiko gastuak ordaintzen dituztenak direla, pentsatzekoa da horiek nabarmen handiagoak izango direla, salbuespenak salbuespen, kapitaleko dirulaguntzak baino, azken horiek aktiboaren inbertsioak finantzatzearekin lotuta baitaude.

Onura publikokotzat deklaratutako Euskadiko elkarteen kasuan, diru-sarrera publikoen % 99 ustiapeneko dirulaguntzak dira; gainerako % 1a, kapitaleko dirulaguntzak. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek ematen dituzte ustiapeneko dirulaguntza gehienak; hain zuzen ere, ustiapeneko dirulaguntzen % 80 baino gehiago ematen dituzte.

Kapitaleko dirulaguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritza (% 57) da batez ere dirulaguntza horiei lotutako inbertsioak finantzatzen dituena.

*24. grafikoa. Dirulaguntza-mota eta ente finantzatzailea (eurotan eta %-tan)*



Kontuen Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 2/2021 Errege Dekretuak ezarritakoari dagokionez, bigarren xedapen gehigarriaren arabera, Europar Batasunaren funtsen edo administrazio publikoen aurrekontuen kargura 600.000 eurotik gorako zenbateko metatua duten laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateen betebeharra izango da ekitaldi horretako eta aipatu dirulaguntza edo laguntzen inbertsioak egiten dituzten edo eragiketak gauzatzen dituzten ekitaldietako urteko kontuak auditoretzapean jartzea.

Hala, 2024ko ekitaldian dirulaguntza publikoak jaso dituzten onura publikoko elkarte guztietatik, 64k gainditzen dute lehen aipatutako xedapen gehigarrian jasotzen den 600 mila euroko muga. Elkarte horien % 100 ikuskatu dira, araudian ezarritakoaren arabera.

%100

**<u>2021-2024ko bilakaera</u>**

Jarraian, onura publikoko elkarteek 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan sortu dituzten diru-sarreren bilakaera ageri da, jasotako diru-sarrera pribatuak eta diru-sarrera publikoak bereizita:

*25. grafikoa. Elkarteen diru-sarreren bilakaera 2021-2024an (eurotan)*




Ikus daitekeenez, nola diru-sarrera publikoek hala pribatuek goranzko joera izan dute azken lau urteetan, eta guztizko diru-sarrerek % 27ko hazkunde metatua izan dute. Igoera hori are nabarmenagoa izan da diru-sarrera pribatuetan, % 31 handitu baitira: 2021ean 73 milioi eurokoak izan ziren, eta 2024ko ekitaldian, berriz, 96 milioi eurokoak.

Diru-sarrera publikoek urtean % 8 inguru hazteko joera erakutsi dute, eta administrazio publikoek 2024an finantzatu dituzten ekarpen publikoak lau urte lehenago finantzatu zituztenak baino % 26 gehiago izan dira, hurrengo grafikoan ikusten den bezala.

*26. grafikoa. Emandako dirulaguntzen bilakaera 2021-2024an (milioi eurotan)*




Emandako dirulaguntzen bilakaera entitate publiko emailearen arabera aztertzen bada, datuek azken urteetan igoera nabarmena ageri dute, bai Foru-Aldundiek egindako ekarpenen bai Eusko Jaurlaritzak egindakoen ondorioz.

*27. grafikoa. Emandako dirulaguntzen bilakaera 2021-2024an, entitate emailearen arabera (eurotan)*



Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, Eusko Jaurlaritza eta Foru-Aldundiak dira onura publikoko elkarteei emandako dirulaguntza publikoak finantzatzen dituzten ente nagusiak. Horregatik, aurreko grafikoa xehatzeko eta emandako dirulaguntzei dagokienez entitate publiko horien bilakaera aztertzeko, hurrengo grafikoan *per capita* informazioa jasotzen da, helburua baita jakitea zenbat dirulaguntza publiko eman diren urteetan zehar lurralde bakoitzeko biztanleen arabera.

*28. grafikoa. Per capita emandako diru-sarrera publikoen bilakaera 2021-2024ko aldian, ente emailearen arabera [Eusko Jaurlaritza eta Foru-Aldundiak] (eurotan)*




***Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika***

Amaitzeko, jarraian ageri den grafikoak ekarpen publikoek azken lau urteetan bizi izan duten bilakaera islatzen du, jarduera-arloaren arabera. Diru-sarreren joera goranzkoa da, batez ere teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-arloko jardueretan, % 44 handitu baitira: 2021ean 27 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten, eta 2024ko ekitaldian, berriz, 39 milioi eurokoak. Orobat, kultura-elkarteek jasotako diru-sarrera publikoak % 48 handitu dira azken lau urteetan. Diru-sarreren bilakaera balio absolutuetan aztertuz gero, 2021-2024ko aldian aldakuntza handiena izan duten jarduera-arloak desgaitasun intelektual eta fisikoena eta gizarte-zerbitzuena izan dira, zeinak 27 milioi euro eta 15 milioi euro handitu baitira, hurrenez hurren. Azkeneko

ekitaldian, gizarte-zerbitzuen, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren eta desgaitasun intelektual eta fisikoen arloetako elkarteek dirulaguntza publiko gehiago jaso dituzte aurreko ekitaldian baino; zehazki, % 17, % 13 eta % 9 gehiago, hurrenez hurren. Gainerako jarduerak egonkor mantendu dira, garapenerako lankidetza izan ezik, jarduera mota horrek 2024an 2023an baino diru-sarrera gutxiago jaso baititu: % 12 gutxiago.

*29. grafikoa. Emandako dirulaguntzen bilakaera 2021-2024an, jarduera-arloaren arabera (eurotan)*



## 2.2 ONDARE-EGOERA, FINANTZA-EGOERA ETA GASTU ERANTSIA

Jarraian, 2024ko ekitaldirako balantze-magnitudeak xehatzen dira, jarduera-arloaren arabera sailkatuta, onura publikokotzat deklaratutako elkarteen gastu erantsiarekin batera:

*3. taula Magnitude ekonomikoak, jarduera-arloaren arabera (eurotan)*

| | MAGNITUDE EKONOMIKOA | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Jarduera-arloa** | **Aktiboa** | **Ondare garbia** | **Ekitaldiko soberakina** | **Gastu erantsia** |
| Desgaitasun intelektual eta fisikoak | 69.420.117 | 33.424.924 | 1.150.761 | 148.952.989 |
| Osasuna | 17.737.237 | 15.326.759 | 740.714 | 19.753.450 |
| Gizarte-zerbitzuak | 51.585.128 | 34.862.355 | 25.719 | 90.350.891 |
| Kultura | 32.595.357 | 21.224.922 | -166.979 | 26.646.552 |
| Garapenerako lankidetza | 37.473.495 | 20.148.272 | 380.448 | 25.894.509 |
| Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza | 156.776.694 | 42.631.742 | 2.364.254 | 66.713.338 |
| Beste batzuk | 13.939.124 | 8.312.566 | 301.826 | 16.692.228 |
| **GUZTIRA** | **379.527.152** | **175.931.540** | **4.796.743** | **395.003.957** |

Elkarteen finantza-egoera neurtzeko, ratioak erabil daitezke, hala nola maniobra-funtsa, zeina kalkulatzen baita aktibo korrontea zati pasibo korrontea eginda. Maniobra-funtsa likidazio-tentsioen adierazgarri izan daiteke, 1etik beherakoa bada. Onura publikoko elkarteen maniobra-funtsaren batez besteko multiploa 1,3koa da. Ondorioz, sektorearen likidezia-egoera saneatuta dago.

Jarraian, 2024ko ekitaldiko ratio hori jarduera-arloaren arabera banakatuta ageri da:

*30. grafikoa. Finantza-egoera: maniobra-funtsa*




Maniobra-funtsaren ratioa 1etik gorakoa bada, ulertzen da epe laburrean ez dela egongo likidezia-arazorik. Banakapena jarduera-arloen arabera aztertuta, osasunaren eta garapenerako lankidetzaren arloko elkarteak dira epe laburrean finantza-egoera kaudimendunena dutenak (4,9 eta 2,5, hurrenez hurren). Aldiz, maniobra-funts baxuena duen eremua teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-elkarteena da (0,9); zifra hori 1 baino txikiagoa denez, baliteke epe laburrean likidezia-arazoak izatea. Hala ere, kontuan hartu behar da jarduera-eremu horretan sartutako elkarteek urte anitzeko finantzaketa publikoa jasotzen dutela, eta finantzaketa hori pasibo korrontean itzuli beharreko dirulaguntza gisa kontabilizatzen dutela, haren kontrapartida aktibo ez-korrontean erregistraturik, eta horrek maniobra-funtsa gutxitzea eragiten du. Edonola ere, arlo gehienek 2tik gorako maniobra-funtsa dute; hau da, sektorearen finantza-egoera epe laburrera kaudimenduna da.

Bestalde, hurrengo grafikoan jarduera-arlo bakoitzaren gastu erantsia irudikatzen da; definizioen oharrean azaldu denez, gastu erantsia zera da: emaitzen kontuko gastu-partida nagusien batura. Bere helburuetara baliabide gehien bideratzen duen arloa desgaitasun intelektual eta fisikoena da (149 milioi euro), ondoren gizarte-zerbitzuena (90 milioi euro) eta, gero, teknologia, ikerketa eta berrikuntzarena (67 milioi euro).

Nabarmentzekoa da teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren eremua, kulturarena eta gizarte-zerbitzuena % 17, % 10 eta % 9 handitu direla, hurrenez hurren, 2024an. Alabaina, garapenerako lankidetzako elkarteen gastua % 9 murriztu da 2023aren aldean.

*31. grafikoa. Gastu erantsia, jarduera-arloaren arabera (eurotan)*




Aurreko 2.1 atalean adierazi den bezala, onura publikokotzat deklaratutako elkarteek 400 milioi euroko diru-sarrerak izan dituzte 2024ko ekitaldian, eta hori gastu erantsiaren antzeko zifra da. Horrek esan nahi du elkarte gehienek beren helburuak betetzeko erabiltzen dutela eskuratzen duten diru guztia, eta ez dutela soberakinik pilatzen. Desgaitasun intelektual eta fisikoen arloa da ondare garbiaren ehuneko handiena jardueretara bideratzen duena, eta nabarmentzekoa da jarduera-arlo guztien ehunekoa % 100etik gorakoa dela.

Bestalde, emaitzen kontua aztertuz gero, ikus daiteke gastu gehienak jardueretan parte hartzen duten langileak kontratatzera bideratu direla (gastu erantsiaren % 62), eta, ondoren, jarduerari zuzenean lotutako beste gastu batzuetara (% 22).

*32. grafikoa. Gastu erantsia, tipologiaren arabera (%)*




Hurrengo atalean, EAEko elkarteen gastu nagusiak aztertuko ditugu, lurralde historikoen arabera. Datu esanguratsuenetako bat da Euskal Autonomia Erkidegoko onura publikoko elkarteek jarduerak egiteko erabilitako *per capita* gastua 178 eurokoa izan zela 2024an, hots, 2023an baino % 7 handiagoa. Jarraian, lurralde historikoaren arabera banakatu dira *per capita* datuak:

*33. grafikoa. Per capita gastu erantsia (eurotan)*




***Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika 2024/12/31n***

Lurralde historikoen arabera alderatzen baditugu datuak, argi geratzen da onura publikoko elkarteek Araban baino presentzia handiagoa daukatela Bizkaian eta Gipuzkoan. Gastu hori honela banakatu da lurraldeen arabera:

*34. grafikoa. Gastu erantsia, lurralde historikoaren (eurotan) eta tipologiaren (%) arabera*




Arabako onura publikoko elkarteen gastu erantsia 39 milioi eurokoa da; horietatik, gutxi gorabehera erdia kontratatutako langileei dagokie, eta laurdena jardueraren beste gastu batzuei. Azpimarratzekoa da laguntzetara bideratutako gastuaren ehunekoa gainerako lurralde historikoetakoa baino nabarmen handiagoa dela.




Bizkaian, gastu erantsia 219 milioi eurokoa da. Gastu horren % 65 pertsonal-gastuak dira, eta % 22 jardueraren beste gastu batzuk. Oro har, tipologiaren araberako gastuaren banaketa EAEko batezbestekoaren ia berdina da.




Gipuzkoako gastu erantsia 137 milioi eurokoa da, eta haren banaketa, Bizkaiarena bezalaxe, bat dator EAEko batezbestekoarekin. Hau da, gastuaren zatirik handiena langileak kontratatzera eta jarduerari zuzenean lotutako beste gastu operatibo batzuetara bideratzen da.

Gastu erantsiaren azterketarekin jarraituz, jarduera-arloaren eta gastuaren tipologiaren araberako banaketa aztertu ondoren, interesgarria da orain aurreko grafikoak batera aztertzea. Ikusten denez, gastu handienaren tipologia aldatu egiten da jarduera-arloaren arabera. Esaterako, gizarte-eremuko helburuak dituzten onura publikoko elkarteek baliabide gehienak langileak kontratatzeko erabiltzen dituzte; beste batzuek, ordea, hala nola garapenerako lankidetzako elkarteek, gastuaren zati handiena dirulaguntzak emateko erabiltzen dute. Jarraian, elkarteen gastu erantsia xehakatzen da, haren tipologia jarduera-arlo bakoitzaren arabera banakatuta:

*35. grafikoa. Gastu erantsia, jarduera-arloaren eta tipologiaren arabera (eurotan)*






## Gizarte-zerbitzuak:
## Gastu erantsia = 90.350.891 €




## Kultura:
## Gastu erantsia = 26.646.552 €



## Garapenerako lankidetza:
## Gastu erantsia = 25.894.509 €




## Teknologiak, ikerketa eta berrikuntza:
## Gastu erantsia = 66.713.338 €






**2021-2024ko bilakaera**

Jarraian, onura publikoko elkarteen gastuak 2021, 2022, 2023 eta 2024ko ekitaldietan izan duen bilakaera erakusten da. Azken lau ekitaldietan % 27ko hazkunde metatua izan du, eta 83 milioi euroko igoera gordina. Igoera hori uniformeki banatzen da aztertutako aldian zehar, baina 2024an hazkundea zertxobait moteldu da, urteko % 9 izatetik % 7 izatera pasatu baita.

*36. grafikoa. Gastu erantsiaren bilakaera 2021-2024an (milioi eurotan)*




Amaitzeko, jarraian ageri den grafikoak gastu erantsiak azken lau urteetan izan duen bilakaera islatzen du, jarduera-arloaren arabera. Gastuen joera goranzkoa da, batez ere teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-arloko jardueretan, % 59 handitu baitira: 2021ean 42 milioi euroko gastua izan zuten, eta 2024ko ekitaldian, berriz, 67 milioi eurokoa. Orobat, kultura-elkarteen gastua % 49 handitu da azken lau urteetan. Azkeneko ekitaldian, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren, kulturaren eta gizarte-zerbitzuen eremuetako elkarteen gastu erantsia handiagoa izan da aurreko ekitaldikoa baino; zehazki, % 17, % 10 eta % 9 handiagoa, hurrenez hurren. Gainerako jarduerak egonkor mantendu dira, garapenerako lankidetza izan ezik, jarduera mota horrek, 2023arekin alderatuta, gastu gutxiago izan baititu: % 9 gutxiago.

*37. grafikoa. Gastu erantsiaren bilakaera 2021-2024an, jarduera-arloaren arabera (eurotan)*



# 3

# PERTSONAK



# Pertsonak

Kapitulu honetan, onura publikoko elkarteak osatzen dituzten pertsonei buruzko datuak aztertzen dira. Izan ere, pertsonek balio handia dute halako elkarteen barruan, eta funtsezkoak dira behar bezala funtziona dezaten eta interes orokorraren mesederako ekintzak abian jar ditzaten.

Jardueran esku hartzen duten hiru pertsona-taldeen ezaugarri nagusiak deskribatzen dira kapitulu honetan; alegia, langileen, zuzendaritza-batzordearen eta boluntarioen ezaugarriak. Sektoreak enpleguan zer eragin duen aztertuko dugu, eta datuak sexuaren, garatutako jardueraren eta kudeatutako gastu-bolumenaren arabera bereiziko ditugu. Jardueran esku hartzen duten pertsona-tipologietan emakumeen eta gizonen zer ehuneko dagoen aztertuko dugu. Halaber, gobernu-organoetan ordezkaritza orekatua den edo, kontrara, maskulinizatua edo feminizatua den aztertuko dugu.

Azkenik, 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 2.4 artikuluan adierazitakoaren arabera, botere publiko guztiei eta botere publikoekin kontratuak edo hitzarmenak sinatzen dituzten edo horiek emandako laguntzen edo dirulaguntzen onuradun diren fundazio pribatuei aplikatzekoak izango zaizkie bai arestian aipatutako ordezkaritza orekatuaren gaineko aurreikuspenak, baita gainerako printzipio orokorrak (3. artikulua) ere; orobat, genero-ikuspegia eraginkortasunez sartu beharko dute beren ohiko jarduera, azterlan, ikerketa edo estatistiketan eta datu-bilketan (17. artikulua), eta modu inklusibo eta ez-sexistan erabili beharko dituzte hizkuntza eta irudiak, zuzenean edo hirugarren pertsonen edo entitateen bidez ekoizten dituzten agiri eta euskarrietan (19.4 artikulua).

## 3.1 ORDAINPEKO LANGILEAK

Jarraian azaltzen den azterketan, elkartean zereginen bat egiten duten eta horregatik soldata jasotzen duten pertsonak hartu dira ordainpeko langiletzat, zenbateko lanaldia duten gorabehera. Hau da, ez da kontuan hartu sinatutako lan-kontratua lanaldi osokoa edo partzialekoa den.

**Enpleguko datu orokorrak eta jarduera-arloaren eta tamainaren araberako sailkapenak**

*38. grafikoa. Ordainpeko langileak*




Onura publikoko elkarteen % 81ek ordainpeko langileak dituzte. Ehuneko hori altuagoa da elkarteen tamaina handitu ahala. Hala, onura publikoko elkarte handi eta oso handi guztiek kontratatuko langileak dituzte, baina proportzio hori murriztu egiten da, % 60 ingurura, mikroentitateen kasuan. Azken horietan, boluntarioak gehiago dira. Jarduera-arloen arabera dauden ordainpeko langileak aztertuz gero, helburu teknologikoekin eta desgaitasun fisiko eta intelektualekin lotutako onura publikoko elkarteak dira kontratatuta langile gehien dituztenak. Bestalde, kulturako eta garapenerako lankidetzako elkarteak dira kontratatuta langile gutxien dutenak.

*39. grafikoa. Ordainpeko langileak, jarduera-arloen arabera (%)*



Onura publikoko elkarteen sektorean 6.153 pertsona daude kontratatuta guztira. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko enplegatuen % 0,62 (*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. EUSTAT*), eta metatutako hazkundea % 15 ingurukoa izan da azken lau urteetan. Gainera, aztertu ditugun onura publikoko elkarteen % 82k plantilla mantendu edo handitu dute azken urtean.

*40. grafikoa. Enplegatu kopuruaren bilakaera*




Bestalde, ordainpeko langileen bi herenek desgaitasun intelektualak eta fisikoak dituzten pertsonen eta gizarte-zerbitzuen jarduera-arloetan egiten dute lan.

*41. grafikoa. Ordainpeko langileen banaketa, jarduera-arloen arabera (%)*



Beren helburuak garatzeko ordainpeko langileak dituzten onura publikoko elkarteen batez besteko plantilla 33 pertsonakoa da. Batezbesteko horretatik gora daude jarduera-arlo hauek: teknologia, ikerketa eta berrikuntza, desgaitasun intelektual eta fisikoak dituzten pertsonak eta gizarte-zerbitzuak.

*42. grafikoa. Enplegatuen batez besteko kopurua, jarduera-arloaren arabera*




Aztertu diren onura publikoko elkarteen batez besteko soldata-kostu gordina 40.085 eurokoa da, elkartearen kargura doazen karga sozialak barne, eta lanaldi partzialeko kontratuen efektua kontuan hartu gabe. Zenbateko hori Euskal Autonomia Erkidegoko zenbatekoa (42.500 euro inguru) baino pixka bat txikiagoa da, eta Estatukoa baino handiagoa, non, 2024ko ekitaldian, batez besteko soldata-kostu gordina 37.500 euro ingurukoa izan baita (*Iturria: Lan-kostuaren urteroko inkesta. EIN*). Nabarmentzekoa da batez besteko soldata-kostu gordina % 3 inguru handitu dela 2023ko ekitaldiarekin alderatuta. Halaber, jarduera-arloen araberako azterketa indibidualizatua egiten bada, batez besteko soldata handienak elkarte teknologikoetan daude. Aldiz, kultura-arloko elkarteek dituzte soldatarik apalenak.

*43. grafikoa. Batez besteko soldata-kostu gordina, jarduera-arloen arabera (eurotan)*




Azkenik, zuzendaritzako langileei dagokienez, ordainpeko langileak dituzten onura publikoko elkarteen % 10ek baino ez dute memorian islatzen goi-mailako zuzendaritzarik dagoen eta haren ordainsari erantsia zenbatekoa den. Beraz, ezin da langileen kategoria horri buruzko ondorio fidagarririk atera.

## Sexuaren araberako banaketa eta berdintasuna

*44. grafikoa. Ordainpeko langileak, sexuaren arabera (%)*




Emakumeak ordainpeko langileen % 73 dira. Ehuneko hori % 82koa da osasunari dagokion jarduera-arloan, horixe baita plantillan emakume gehien duen arloa. Batezbestekora heltzeko gehien falta duten arloak, aldiz, teknologia, ikerketa eta berrikuntzarena, gizarte-zerbitzuena eta kulturarena dira. Onura publikoko elkarteen tamainari begiratuz gero, emakume gehien (% 81) onura publikoko elkarte handietan daude; gainerakoetan, proportzioa % 70 ingurukoa da.

*45. grafikoa. Banaketa, ordainpeko langileen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%)*




Euskal Autonomia Erkidegoan, 2024an, emakumeak landunen % 48 ziren (*Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta. EUSTAT*). Beraz, onura publikoko elkarteen sektorea Euskal Autonomia Erkidegoko sektoreen batezbestekoa baino feminizatuagoa dago. Hain zuzen ere, antolakundeen % 88tan emakumeak nagusi dira ordainpeko langileen artean, barne hartuta onura publikoko elkarteen % 33, haietako ordainpeko langile guztiak emakumeak baitira. Aldiz, onura publikoko elkarteen % 4tan soilik dira langile guztiak gizonak.

## 3.2 ZUZENDARITZA-BATZORDEA

Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak 15.2 artikuluan xedatzen duenez, *“estatutuetan, kide anitzeko gobernu-organo bat egotea aurreikus daiteke: Zuzendaritza Batzordea edo antzeko izenen bat hartuko luke, eta elkartea zuzentzeko eta kudeatzeko eginkizunak beteko lituzke”.* Orobat, lege horren 17.2 artikuluak hau dio: *“Estatutuetan beste ahalmen batzuk eslei dakizkiokeen arren, gobernu-organoari dagokio elkartearen ohiko zuzendaritza eta kudeaketa, Batzar Nagusiak ematen dituen jarraibideen arabera eta batzar horren ikuskaritza eta kontrolaren pean”*. Beraz, Batzar Nagusia arduratzen da elkartearen estrategia orokorra eta jarduera-ildoak definitzeaz, eta Zuzendaritza Batzordea, berriz, elkartearen ohiko kudeaketaz, eta helburua izango da hartzen dituen erabakiei esker ahalik eta gehien betetzea Batzar Nagusiak onartutako jarduerak.

Bestalde, legeriak mugatu egiten du zuzendaritza-batzordeko kideei karguari lotutako eginkizunak betetzeagatik ordainsariak emateko aukera. Izan ere, Euskadiko Elkarteei buruzko Legearen 19. artikuluak zera xedatzen du: *“Estatutuetan zehazten diren baldintzetan eta moduan, ordezkaritza- eta gobernu-organoetako kideek ordainsari egokia jaso ahal izango dute, organo horietako kide izate hutsagatik dagozkien eginkizunez bestelako zerbitzuak egiteagatik”*. Gainera, artikulu horrek berak hau dio: *“Presidenteak edo, hala badagokio, kide anitzeko gobernu-organoko gainerako kideek beren karguagatik ordainsariak jaso ahal izateko, hori berariaz jaso behar da estatutuetan (...). Orobat, Batzar Nagusiak ordezkaritza- eta gobernu-organoetako kideei zein beste edozein elkartekideri dietak eta froga daitezkeen gastuak ordaintzea erabaki dezake, eta ez da beharrezkoa aukera hori estatutuetan berariaz jasota egotea”.*

**<u>Zuzendaritza-batzordearen datu orokorrak eta jarduera-arloaren araberako sailkapenak</u>**

Aztertutako onura publikoko elkarteek guztira 1.792 pertsona dituzte beren gobernu-organoetan. Hau da, zuzendaritza-batzordeak batez beste zortzi pertsonak osatzen dituzte, eta gehien-gehienek hamar pertsonatik beherako tamaina dute. Elkarteei buruzko Legearen 15. artikuluari jarraituz, elkarteetan nahitaez egon behar duten karguak dira presidentearena, idazkariarena eta diruzainarena (diruzainaren kargua idazkariak bete dezake).

Beraz, zuzendaritza-batzordea kide anitzeko organoa izango da, eta gutxienez hiru pertsonak osatuko dute; hain zuzen, tamaina hori dute onura publikoko elkarteen zuzendaritza-batzordeen % 10ek. Jarduera-arloei dagokienez, zuzendaritza-batzorde handienak teknologia, ikerketa eta berrikuntzakoak eta kulturakoak dira. Aldiz, garapenerako lankidetzaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan, tamaina txikiagoa izan ohi da (arlo horietako zuzendaritza-batzordeen % 94tan hamar pertsona baino gutxiago daude).

*46. grafikoa. Zuzendaritza-batzordearen tamaina*




## Sexuaren araberako banaketa eta berdintasuna

*47. grafikoa. Zuzendaritza-batzordearen osaera, sexuaren arabera (%)*




Zuzendaritza-batzordeetako kideen % 53 emakumeak dira, eta proportzio hori % 2 handitu da azken lau urteetan. Jarduera-arlo ia guztietan batezbestekoarekiko (% 53) desbideratzea oso txikia da, kulturaren eta teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren arloetan salbu. Azken horietan, emakumeek gobernu-organoko postuen % 41 eta % 35 betetzen dituzte, hurrenez hurren, hau da, genero-arrakala % 18koa eta % 30ekoa da, hurrenez hurren.

*48. grafikoa. Banaketa, zuzendaritza-batzordeko kideen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%)*




Bestalde, gobernu-organoko presidentearen edo idazkariaren sexuari dagokionez, zuzendaritza-batzordeen % 55ek emakume presidentea dute, eta onura publikoko elkarteen % 58k emakume idazkaria dute. Hau da, bi kasuetan, emakumeen presentzia batezbestekoa baino handiagoa da: presidente-karguaren kasuan, emakumeen ehunekoa 2 ehuneko-puntu handiagoa da; idazkari-karguaren kasuan, berriz, emakumeen presentzia batezbestekoa baino 5 ehuneko-puntu handiagoa da. Jarduera-arloei dagokienez, arlo bakoitzeko zuzendaritza-batzordeko kideak sexuaren arabera bereizita, desbideratze handiena teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-arloan gertatzen da; izan ere, zuzendaritza-batzordean dauden emakumeen proportzioa % 35ekoa da, emakume presidenteak % 67 dira, eta idazkariak, aldiz, % 17 baino ez.

Emakumeek zuzendaritza-batzordeetan duten presentzia % 53koa da, nahiz eta ordainpeko langileen % 73 emakumeak izan. Datua jarduera-arloen arabera aztertzen bada, zuzendaritza-batzordeetako eta plantilletako emakumeen presentziaren alde handiena teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-arloan ageri da, hori baita gobernu-organoan emakume gutxien duen arloa.

*49. grafikoa. Osaeraren konparazioa, sexuaren arabera (%)*




*50. grafikoa. Emakumeen proportzioaren konparazioa, jarduera-arloen arabera (%)*



**Ordezkaritza orekatua**

Zuzendaritza-batzordeetako ordezkaritza orekatua den aztertzeko, hauxe hartuko da erreferentzia modura: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3. artikuluan zehazten den definizioa. Artikulu horren arabera, zuzendaritza-batzordearen ordezkaritza orekatutzat hartuko da, baldin eta emakumeen eta gizonen proportzioa % 40 eta % 60 arteko tartean badago, eta lau kidetik beherako zuzendaritza-batzordeen kasuan, bi sexuetako pertsonak ordezkatuta badaude.

Bestalde, zuzendaritza-batzorde maskulinizatutzat joko dira emakumeak % 40 baino gutxiago badira, eta feminizatutzat, berriz, % 60 baino gehiago badira.

Aztertutako onura publikoko elkarteen artean, % 42k du ordezkaritza orekatua gobernu-organoan; % 36k zuzendaritza-batzorde feminizatua dauka, eta gainerako % 22ak, zuzendaritza-batzorde maskulinizatua.

*51. grafikoa. Ordezkaritza orekatua zuzendaritza-batzordeetan (%)*




Azken lau urteetako datuak erreferentziatzat harturik, zuzendaritza-batzorde maskulinizatuak gutxitzen ari dira, % 4 murriztu baitira, eta, hain zuzen ere, proportzio horretan handitu dira zuzendaritza-batzorde feminizatuak. Horrek berekin ekarri du ordezkaritza orekatua duten zuzendaritza-batzordeen ehunekoa egonkor mantentzea azken urteetan.

*52. grafikoa. Ordezkaritza orekatuaren bilakaera zuzendaritza-batzordeetan (%)*




Ordezkaritza orekatua jarduera-arloen arabera aztertzen bada, zuzendaritza-batzordeko kideen sexuen araberako banaketan gertatzen den bezala, kultura-arloan dago zuzendaritza-batzorde maskulinizatuen ehunekorik handiena; izan ere, arlo horretan, zuzendaritza-batzorde guztien % 44 daude maskulinizatuak, hau da, batezbesteko orokorrean baino % 22 gehiago. Bestalde, ordezkaritza orekatua batezbestekoa baino handiagoa da desgaitasun intelektual eta fisikoak dituzten pertsonen jarduera-arloan eta teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren jarduera-arloan, non ordezkaritza orekatua duten zuzendaritza-batzordeen ehunekoa % 47koa eta % 67koa baita, hurrenez hurren.

*53. grafikoa. Zuzendaritza-batzordeko ordezkaritza orekatua, jarduera-arloen arabera (%)*



Bestalde, ez dirudi onura publikoko elkarteen tamainak eragin handia duenik ordezkaritza orekatuan; izan ere, elkarte oso handietan soilik ikusten da batezbestekoarekiko desbideratzea: halako elkarteen % 71k ordezkaritza orekatua dute zuzendaritza-batzordean.

*54. grafikoa. Zuzendaritza-batzordeko ordezkaritza orekatua, entitatearen tamainaren arabera (%)*



### 3.3 BOLUNTARIOAK

Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legearen 2.1 artikuluak honela definitzen du boluntariotza:

*«Pertsona fisikoek aurrera eramaten dituzten interes orokorreko ekimenen multzoa da boluntariotza, ekimen horiek honako baldintza hauek betetzen badituzte:*

*a) Norberaren probetxurako ezer lortzeko asmorik gabekoak izatea eta elkartasunak bultzatuak izatea.*

*b) Borondatezkoak eta askatasun osoz eginak izatea; arrazoia lan-, funtzionariotza- edo merkataritza-harremana ez izatea, ez eta obligazio pertsonala edo betebehar juridikoa ere.*

*c) Irabazi-asmorik ez duten erakundeen bidez eta programa edo egitasmo zehatzei jarraituz eginak izatea.*

*d) Ordainsaririk gabeak izatea.*

*e) Ordaindutako zerbitzu profesionalak inolaz ere ez ordezkatzea».*

Elkarteen kasuan, boluntarioen lana ezinbestekoa da, eta balio handia dauka helburuak lortzeko orduan, batez ere ordainpeko langilerik ez duten edo pertsona gutxik osatutako plantilla duten entitateen kasuan.

**<u>Boluntarioen datu orokorrak eta jarduera-arloaren eta tamainaren araberako sailkapenak</u>**

Onura publikoko elkarteen % 84 inguruk boluntarioak ditu, eta, gainera, elkarte horietatik, % 16k ez dute ordainpeko langilerik; azken horietan, beraz, giza baliabideak boluntarioak dira, ehuneko ehunean. Hori horrela, boluntarioak dituzten onura publikoko elkarteen ehunekoa handiagoa da tamaina txikiagoko entitateetan, eta murrizten doa kudeatutako gastuen bolumena handitu ahala.

*55. grafikoa. Boluntarioak*



*4. taula Boluntarioak, tamainaren arabera (%)*

| Tamaina | Boluntarioekin | Boluntariorik gabe |
|---|---|---|
| Oso handia | % 57 | % 43 |
| Handia | % 78 | % 22 |
| Ertaina | % 81 | % 19 |
| Txikia | % 85 | % 15 |
| Mikro | % 87 | % 13 |

Jarduera-arloa aztertuz gero, gizarte-gaiekin lotutako helburuak dituzten onura publikoko elkarteek boluntario gehiago dute beren lantaldeetan.

*56. grafikoa. Boluntarioak, jarduera-arloen arabera (%)*




Onura publikoko elkarteen sektorean guztira 15.024 boluntario daude, eta % 20 inguruko hazkunde metatua izan du azken lau urteetan. Era berean, lankidetza mota hau duten elkarteen % 84k 78 boluntario dituzte batez beste; nolanahi ere, horien % 75ek 50 boluntario baino gutxiago dituzte.

*57. grafikoa. Boluntario-kopuruaren bilakaera*




*58. grafikoa. Boluntarioen kopurua*



Jarduera-arloen araberako banaketari dagokionez, boluntarioen % 45 kultura-elkarteetan biltzen dira. Aldiz, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren arloko onura publikoko elkarteek ez dute langile boluntariorik.

*59. grafikoa. Boluntarioen banaketa, jarduera-arloen arabera (%)*




## Sexuaren araberako banaketa eta berdintasuna

*60. grafikoa. Boluntarioak, sexuaren arabera (%)*




Emakumeak boluntarioen % 57 dira; alegia, ordainpeko langileen datua baino 16 ehuneko-puntu gutxiago. Jarduera-arlo hauetan dago emakume boluntarioen proportzio handiena: desgaitasun intelektual eta fisikoak dituzten pertsonen arloan eta garapenerako lankidetzaren arloan.

*61. grafikoa. Banaketa, boluntarioen sexuaren arabera, jarduera-arloei jarraikiz (%)*



